

OLIVENZA

Tarteka komunikabideetan oihartzuna hartzen duen muga korapilatsu bat

📁 IBERIAR PENINTSULA / Alessandro RUTA

Albistea irakurri nuenean piztu zitzaidan jakin-mina, pasa den irailean: «Portugalek Olivenza hiria aldarrikatzen du», edo antzeko zerbait zioen. Nahiko garrantzitsua zirudien aferak, larria akaso, eta horretan sakontzen saiatu nintzen berehalakoan. Mundu bat ireki zitzaidan, batez ere Olivenzari buruzko Wikipediaren italiarazko bertsioa zabaldu ondoren (barkatu, ez da iturririk onena, baina Google-n algoritmoak zorrotzak dira). Honela zioen: Olivenza; “*Territorio Conteso*” –hau da, “Ezbaian dagoen lurraldea”–, Estatu espainolaren eta Portugalen artean. Legez, egungo garaiotan Espainian dagoen baina Portugalak nahi duen hiri txiki bat, 11.000 biztanle dituen.

XXI. mendean, eta oraindik honelako aldarrikapen bat? Hori ez al da gerrarekin lotutako kontua gehienetan? Krimia, Donbass, Palestina...? Gandik askoz gertuago dago Olivenza, eta ez da gerra girorik sumatzen, kontrakoa bai: izen polita du, poetikoa.

Berehalakoan etorri zait burura Jose Saramago idazle handia, Nobel Sariduna, eta bere ustea: Iberiako Penintsulak barne-mugarik ez zuela behar, bakarra eta banaezina behar zuela izan. Saramago hil da, zoritxarrez, baina lerro batzuk utzi zizkigun Olivenzari buruz “Portugalera bidaiaria” testuan (“*Viagem a Portugal*”). «Olivenza indarrez kendu ziguten, eta orain sinesmena konbentzimendu bihurtu da».

«LARANJEN GERRA»

Abiapuntura itzulita, zein zen irakurri nuen albiste hura?

«Nuno Melo Portugalgo Defentsa Nazionaleko ministroak bi herrialdeen arteko mugatik gertu dagoen Badajozko Olivenza herria entregatzeko exijitu dio Espainiari, itun bidez adostu zenez, Portugalgo udalerrri bat behar duelako izan. Eskubide kontua da, bidezkoa».

Nuno Meloren hitzak: «Olivenza portugaldarra da, eta hau ez da probokazio bat». Hain zuzen ere, ministroak gogora ekarri du, Alcañicesko Itunaren arabera, Portugalgo Estatuak ez duela Olivenza Espainiako lurralde gisa aintzartat hartzen. Eta berak, erodiputatu zenean, jada gai hori mahai gainean jarri zuela oroitarazi du: «Ez gaude, beraz, aldarrikapen hau alde batera uzteko prest».

Olivenza, Olivenza... baina non dago Olivenza? Zer esan nahi du aferak eta noiztik dator? Mugan kokatutako hiria da. Gaztelako Koroak Portugal eman zion aipatutako Alcañicesko Itunaren bitartez 1297. urtean. Baina Espainiaren eskuetara itzuli zen subiranotasuna “Laranjen gerra” delakoaren ondoren, 1801. urtean, Badajozko Ituna zela medio.

Honekin ez zen ezer amaitu. Lisboatik aldarrikapena behin eta berriz berragertu zen. Portugalek uste du lurraldea be-

rea dela eta Estatu espainolak ez duela 1815eko Vienako Kongresuan hitzartutakoa betetzen. Vienako Kongresu hark eskola-oroitzapen politikak ekartzen dizkigu burura: Eu-

Txirrindulari bat,
Olivenzako Santa Maria
Magdalena elizaren
aurrian.
Paulo ESPRANGER | GLOBAL IMAGES | EUROPA PRESS

ropa modernoa eraikiko omen zuen bi urtez luzatu zen “gailurrak”. Napoleon Bonaparteren aroa gaindituta, Vienan Metternich, Wellington eta haien lagunak batzartu ziren, besteak beste, Olivenzari buruz mintzatzeko: «*Oui? Non? Ici? Comme ça?*» irudikatu dezakegu, alemanez ere bai, beharbada.

Ez da berria, hortaz, orain Nuno Melo ministroak berretsitako aldarrikapena. Azken hamarkadatan sarritan azaleratu da. Edozein kasutan, irakurria dut (eta oraingoan ez Wikipedian) nahasketa kultu-



ralari zentzuz eusten zaiola Olivenzan.

Honela erantzun dio Portugalgo ministroari Manuel Jose Gonzalez Andrade Olivenzak alkateak: «Mugen bidez banatzea bilatzen duten diskurtsoak iragan mendeetakoak dira, eta XXI. mende honetan ahaztuta beharko lukete. Ziur nago ministroak une honetan gai premiazkoagoak eta garrantzitsuagoak dituela. Udal-erri honetan batzen gaituenaren alde egiten dugu lan. Olivenza zeharo pozik eta harro dago bere iraganaz eta bere histori-az, bakarrak egin gaituztelako eta Iberiar

«Bidezkoa da aldarrikapena», esan du Nuno Melo ministroak, 1297ko Alcañicesko Ituna gogora ekarriz. Gero Laranjen Gerra edota Vienako Kongresua etorri ziren...

Historiari buruzko liburu asko daude Olivenzan, batzuk oso mamitsuak, baina udal liburutegiaren txoko ezkutu batean kokatu dituztela esan daiteke

Penintsularen barruan nortasun paregabea izateko aukera ematen digutelako. Partekatutako historia horrek potentzialtasun handia ekarri digu».

Baina oraindik absurdoena irakurtzeko nuen Olivenzari buruz; Amerikar Estatu Batuetako CIAren eskutik. Izan ere, «nazioarteko gatazka eremu» gisa sailkatua du hiria bere fitxategietan, gun-*“berotzat”* du, alegia. Inteligentzia agentziak bertan du Olivenza, Gazarekin batera, besteak beste, zerrenda berean.

Alcañices, Vienako Kongresua, Laranjen Gerra... eta azkenik, CIA tartean. Azken honek Queen musika taldearen abesti bat ekarri dit gogora: *“The invisible man”*. «Zure gelan nago, zure ohean nago, zure bizitzan, zure buruan, CIA edota FBI bezala». Honetara iritsita, erabaki nuen Olivenzara joan behar nuela, bai ala bai.

«CERCA DE LA RAYA»

Zer deskubritu dut bertan? Hasteko, hiria txukuna dela, osoa. Dotorea ere bai. “Postalekoa” iruditu zait lehengo begi-kolpean, hegoaldeko tipikoa; etxetxoak zuri-zuriak dira, bi edo hiru solairu dituzte asko jota, enparantza handi bat dago (Plaza España, jakina), udaletxea jauregi batean kokaturik dago... «Terro-ismoaren biktimei oroiga-



ria» ere bada. Eta denda txinatar bat, izozkailuetan jartzeko imanak, beste zenbait oroi-garri eta bertako produktu tipikoak saltzen dituen.

Tenperatura aldetik, ez hotz ez bero urteko garai honetan. Atseгина da tokia, zuhaitzak loratzeko ezin hobea. Jendea ere atseгина: *«No coja las naranjas del arbol, señor, usted vera que son muy, muy amargas»*, azaldu dit emakume batek, banku batean eserita, hortik bueltaka ikusi nauenean.

Aholkua eskertu diot, laranjak beren tokian utziko ditugu, Santa Maria del Castillo plaza honetan. Pena ematen du, itxuraz oso erakargarriak direlako. Andaluzian ere laranjak oso garrantzak dira, Sevillan egiaztatu nuen. Laranjak, laranjak, laranjak beti: horiengatik piztu al zen “Laranjen gerra” hura? Ez dadila errepikatu, mesedez.

Nire asmoa norbaitekin hitz egitea da, ez aurretik hitzartuta, kasualitate antzera

baizik, baina goizean ia ez dabil inor kaleetan. Lekurik jendetsuenerantz abiatu naiz: udal liburutegira. Olivenzak erdigunean dago. Kaleak zeharkatzean, kartelak ikusten ditut, toponimia azterketa azkar batean: elebitasun ariketa antzematen da seinaleetan, baina zertxobait “lotsatia”, desorekatua, horren arduradunak guztiz kontentzitatea izan ez balira bezala. Honela, kale batzuetan gaztelania eta portugaleria erabiltzen dira, biak, baina bide-seinaleetan ez hainbeste, zenbaitetan bai eta zenbaitetan ez. Eta jatetxeetan, ia dena gaztelaniaz dago.

Liburutegira heldu naiz jada. Nahiko handia da, hiru solairukoa. Sarrera arriskutsua iruditu zait, errepidearen gainean dagoelako. Zentzuzkoa da bertan kartel hau jarri izana, gaztelania hutsean: *“Cuidado al salir”*. Ibilgailuak bertatik pasatzen dira arrisku egoerak sortuz, ez Milango or-

Kaleko seinaleak portugesez Elvaseko kaleetan, mugaren beste aldean dagoen «Olivença» tartean.
Alessandro RUTA





du nagusietan bezala, baina bai sarritan.

Ez dago inor harreran, aita bat eta seme bat baino ez. Arduraduna telefonoz ari da, liburutegi guztietan bezala, aha-peka: «*Sí, es que la cobertura aquí es muy mala, a veces se pierde, ya sabes que estamos cerca de la raya...*»

Azken hitzari erreparatzea komeni, ez baitago muga sentsaziorik Olivenzan, marra bat baizik. «*La raya*», poetikoa da, gero... Jakin banekien mugari horrela deitzen ziotela hemen, «marra», baina zuzenean entzuteak arreta ematen du. Ez dakit metaforikoki erabiltzen duten edo barruan horrela sentitzen dutelako, baina ingeniariak imajinatzen ditut, Napoleon Bonaparteren garaian, mapetan mugak margotzen, marren bidez. Afrikan beste batzuek egin zutenaren antzera. «*La raya*» gaztelaniaz, «*a raia*» portugaleraz. Isiltasuna hausteko asmorik gabe mugitzen naiz, poliki-poliki. Aita

eta semea errietan hasi dira, txikia ia negarrez dago. Txoko batean, apur bat ezkutuan, liburu zahar batzuk daude, eta horien artean Olivenzako hitz eta esaldi tipikoak biltzen dituen idazlana: “Dichos Oliventinos” du izenburu. «*En esta terruca, quen nau trabalha na manduca*», «*A festa en Marzu, muita fomi o muito mortazu*», «*Parece que fuistes a la pida [cuando hay mucho dinero en monedas]*»...

Deigarria da elebitasun hori, hunkigarria ere bai, esango nuke: esaldi batzuk portu-

Elebitasun ariketa sumatzen da seinaleetan, baina zertxobait «lotsatia» eta desorekatua. Portugaleraren transmisioaren katea eten egin da azken hamarkadetan

Gaur egun 1.500 pertsonatik gora dira portugaleraz egiten dutenak (11.000 biztanleren artean), batez ere adinekoak. Gazteen artean portugaleraz sustatzeko neurriak hartu izan dira

Olivenzako kaleak, duela urte batzuk ateratako argazkian.
JMN | COVER | GETTY IMAGES

galeraz dira, beste zenbait gaztelaniaz. Azken finean, XX. mendearen erdialdean Olivenzako kaleetan gehien entzuten zen hizkuntza Portugalgoa zen, nahiz eta gero transmisio kate hori hautsi egin den azkeneko belaunaldietan. Gaur egun 1.500 pertsonatik gora dira portugaleraz egiten dutenak (11.000 biztanleren artean), batez ere adinekoak, nagusiak. Zenbait gazte ere moldatzen dira, udalerrian portugaleraren ezagutza sustatzeko neurrien onuradunak izan direlako.

“Dichos Oliventinos” honekin batera, beste hamaika liburu topa ditzakegu bertan, hiriari eskainiak. Ehunen bat esango nuke, asko. Turismo arlokoak dira gutxi batzuk. Historiari buruzkoak gehiago dira: “La guerra de las naranjas”, “Olivenza entre España y Portugal” (Luis Alfonso Limpo Perezena), “Historia de Olivenza” (Gregorio Torres Gallegorena)... Liburu hauen tonua se-

rioa da, izen eta datu mordoa dakarte. Orokorrean Olivenzako auzia nahiko bizirik dagoela antzeman daiteke, baina aldi berean adierazgarria da liburu hauek ezkutuko kantoi batean jarri dituztela.

Gaur egun, zenbat jende ezagutzen du afera hirian bertan, liburutegitik kanpo? Aldarrikapenik bada, non dago? Taberna edota jatetxeetan eztabaidatzen al da honetaz? Bitxikeriatzat hartu daiteke, zerbait pintoreskotzat, edo benetako arazoa al da? Eta jakina, galdera nagusia, non nago, non gaude? Portugalen edo Espainian?

Jende gutxi dabilelarik, egiaztatzeko aukerak eskasak dira. Baina hau aipatu didate: «Espainiako seme-alabak eta Portugalgo bilobak sentitzen gara hemen».

ELVASÉN

Guadiana ibaia eta bere gaineko zubiak: hauek bai muga historiakoak, hauek bai «marra» garbiak. Olivenzan batetik bestera ibili ondoren, beste aldea ikusi nahi izan dut, ea bertan zerbait gehiago deskubritzen dudan. Portugal hasten den marra gurutatu ondoren, aurreneko herria Elvas da, Unescok ondare gisa hartzen duen hiria, goitik ikusita izar itxura duena, bere hormatzarrekin. Liluragarria, benetan. Alde Zaharrean autoa uztea zaila da gero, baina azkenean lortu dut.

Olivenzatik Elvasera joateko, EX-105 errepidea hartu behar da, eta seinalea ikusi ondoren beste oroitzapen bat etorri zait burura: “La casa de papel” seriearena oraingoan. Zergatik? Ez dakit bukaera ikustera heldu zineten, baina azken atalaren azken aurreko sekuentzian (gutxi gorabehera) taldea Portugalera joaten da, eta EX-105 hau bera

hartzen du. Beraz, apur bat “Berlin” edo “Lisboa” sentitu naiz une batez, nahiz ihesean ez nabilen.

Elvasen, antza, inork ez da ki ezer Olivenzaren auziari buruz. Taberna batera sartu naiz kafe (on) bat hartzeko; bi gizonetako solasean ari dira, barran, eta begiratzen dudan lehen gauza menua da. Ez du Olivenzakoarekin zerikusirik. Portugalgo hirian goxokiak badaude; Extremadurakoan ez. Kafearekin batera tabernariak bi azukre-gutun txo eman dizkit, ez bakarrik: «Horrela egiten dugu hemen», azaldu dit tabernariak, portugaleraz, jakina. Zinez zaila da hizkuntza horretan ezer harrapatzea, azkar egiten dutenean.

Elvasen ez da Olivenzaren aipamenik ageri kaleetan, ez pankartarik, ez manifestazio deialdirik. Hala ere, itzultzeko bidean bi gauza deigarri nabaritu ditut. Errepidean “ESPANHA” dago idatzita, oso letra larritz, haratago beste mundu bat hasiko balitz bezala, “Kontuz ibili” baten antzera adierazia. Eta Elvasetik ikusita, Olivenza ez da

Olivenza, Olivença da, eta ez letra larritz, samurrago baizik.

«La raya» edo «a raia» arina da, berriz, fin-fina. Eta CIARI auzi hau nabarmentzea nola okurritu zaion pentsatzen joan naiz, ez baita Gaza, ez eta Malvina irlak ere. Eta beste burutazio bat: honaino etorri ziren espioiek Olivenzako “migak” jango zituzten seguru, ogi apu-

Elvasen, taberna batera sartu naiz kafe (on) bat hartzeko. Ez du Olivenzakoarekin zerikusirik. Portugalgo hirian goxokiak badaude; Extremadurakoan ez

Elvasen ez da Olivenzaren aipamenik, ez pankartarik, ez manifestazio deialdirik. ‘ESPANHA’ oso letra larritz margotu dute, hori bai, ‘kontuz ibili’ adierazi nahiko balute bezala



Iturria Olivenzan, gaztelania portugalerazko izendegiarekin nahastuz. Alessandro RUTA

ESTREINALDIA



ATERPEA

Diskurtso faxisten dikanan dauden herritarren aterpe



Martxoaren 12an hasita
asteazkenero 21:30ean
Hamaika Telebistan

